

# EGILETA

– ARABA / ÁLAVA –

Egileta herria Dulantzi udalerrian dago, Aguraingo koadrilaren barruan. Gasteiztik 13 km eta erdira dagoela, Donostiara daraman N-104 errepidetik abiatuta heltzen da bertara. Elorriaga igaro ondoren, eskuinera jo behar da, A-132 errepidea hartuz, eta Askartza, Argandoña, Villafranca, Andollu eta Trokoniz atzean utzi ondoren iritsiko gara, Azazeta mendatea igotzen hasi baino lehentxeago.

*Reja* deritzon dokumentuan *Gelbegieta* izenez aipatzen da, *Hiraszaezako* barrutiaren baitan zegoela, Donemiliagari hiru errexako ekarpen harrigarria egiten ziola zehaztuz. Aznar apezpikuak *Hygueleta* izena jaso zuen.

El pueblo de Egileta pertenece al ayuntamiento de Alegría-Dulantzi, dentro de la Cuadrilla de Salvatierra. Desde Vitoria, situada a algo más de 13 km y medio, se llega saliendo por la carretera N-104 hacia San Sebastián. Tras Elorriaga, se debe girar a la derecha por la A-132, dejando atrás Ascarza, Argandoña, Villafranca, Andollu, y Trokoniz. Poco antes del comienzo de la subida del puerto de Azázeta se encuentra el pueblo.

En el documento de la Reja se le denomina *Gelbegieta* y paga nada menos que tres rejas a San Millán en el Alfoz de Hiraszaeza. El obispo Aznar lo denomina *Hygueleta*.

## San Roman eliza / Iglesia de San Román

**B**ECERRO DE BENGEOA historialariak "mende guztietan petatxatutako eliza txiro bat" dela dio. Egia da, izan ere, eraikinak esku-hartze asko jasan dituela denboran zehar. Gaur, elizaren gehiena XVIII. mendean –1730 inguruan– egindako berreraikuntza-lanen emaitza da. Nabe bakarrek luzetarako oinplanoa bost tartean banatuta dago, luneta-gangak estalirik. Parpain-arkuek jatorriko eliza erromanikoaren egiturari eusten diote. Gainerako egonlekuak ere berreraikuntzaren urteetan egindakoak dira.

Koruplean, lehengo bataiarria dago: ontzi lisoari apaindu gabeko pilare zilindrikoak eusten dio; pilarea bermatzen duen harroinak, ordea, ebakiriko landare-motiboak eta irudi geometrikoak erakusten ditu zirkuluerdien barruan, eta lau maskaroi ere baditu, izkinetan.

Elizaren elementurik aipagarriena portada da, bost arkibolta eta deskarga-arkua dituena. Barrutik kanpora, lehenengo hiru arkiboltak baketoi lisoz apainduta daude, nahiz eta bigarrenaren arkubarnerak eta arkugainerak erliebe txikiko landare-motiboak erakusten dituzten. Kanpoko bi arkiboltak eta deskarga-arkua hostoak kanporantz iraulirik dituzten akanto estilizatuek apaintzen dituzte, trepano-ebaki ugariekin. Arkiboltak zurtoin izurtuko landare-apaindura duen inposta jarraituan bermatzen dira. Zurkaintzak bost baketoi-sorta dira, erdian zutaberdi zabalagoa bat eta alboetan estuago bi dituztenak; denek ere gutxi nabarmendutako motibo puntazorrotzez apainduriko kapitela dituzte, bai eta maskaroiak ere, oso hondatuak, eskuinaldeko

**B**ECERRO DE BENGEOA habla de "una pobre iglesia remendada en todos los siglos". En efecto, muchas son las intervenciones que este edificio ha sufrido con el paso de los años. Actualmente el grueso de la iglesia corresponde a la reconstrucción del siglo XVIII, hacia 1730, y presenta planta longitudinal de una nave dividida en cinco tramos cubierta por bóvedas de lunetos. Los arcos fajones conservan la estructura de la primitiva iglesia románica. El resto de dependencias corresponden también a los años de la reconstrucción.

Se conserva bajo el coro la pila bautismal, de copa lisa sobre pilar cilíndrico sin decorar, pero con una basa con motivos incisos, geométricos o vegetales dentro de semicírculos, así como cuatro mascarones en las esquinas.

Lo más destacable de esta iglesia es la portada, con cinco arquivoltas y sobrearco. De dentro afuera, las arquivoltas se decoran con baquetón liso, las tres primeras, aunque el intradós y el trasdós de la segunda muestran motivos vegetales con poco relieve. Las dos exteriores y el sobrearco presentan acantos estilizados, con las hojas vueltas hacia afuera y con mucha labra de trépano. Las arquivoltas se apoyan sobre una imposta corrida con decoración vegetal de tallos ondulantes, con punteado y hojas planas en los espacios. Los apeos consisten en cinco juegos de baquetones, compuestos por una semicolumna más ancha flanqueados por dos más estrechas, todas con capiteles de motivos puntiagudos poco marcados y con mascarones



Portada / Portada

erpinetan eta ezkeraldearen barruan. Fusteak lisoak dira, eta harroinak, oxkarratuak.

Testua eta argazkiak: REA



Bataiarria / Pila bautismal

muy deteriorados en los vértices del lado derecho y en el interior del lado izquierdo. Los fustes son lisos y las basas festoneadas.

Texto y fotos: REA

### Bibliografía / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 115; CASTRO, C. de, 1915, pp. 147; LÓPEZ DE GUERENU, G., 1962, p. 450; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1975, p. 351; VEGAS ARAMBURU, J.I., 1985, pp. 104-108.